

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak NPBren 98 milioi euro baino gehiagoko ordainketa burutu du

Horrela, 2016ko kanpaina itxi du ekainean

Asteartea, 2017.eko ekainak 27

Nafarroako Gobernuak dagoeneko Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPG) 98.724.893 euroko ordainketa burutu du, Nekazaritzaren Europako Berme Funtzaren (FEAGA) kontura Nafarroako nekazariei eta abeltzainei egindako zuzeneko ordainketei dagokiena. Horrela, 12.435 titularrek kobratu dute kanpaina honetako laguntza bat edo batzuk.



Soro landuak.

Funts gehienak oinarrizko ordainketak eta ordainketa berdea izan dira. Horieta lehenengoak, 57,7 milioi eurokoa, nekazariak eta abeltzainei dituen eskubideen esleipenarekin eta aitortutako hektarea kopuruarekin lotuta dago. Ordainketa berdeak, 28,6 milioi eurokoak, larreak mantentzea, laboreak eta interes ekologikoko azalera dibertsifikatzea saritzen du.

Halaber, abeltzaintzat bideratutako beste laguntza batzuk nabarmentzen dira: 4,6 milioi ardi-ahuntzen sektorerako, 2,8 milioi behi-ume hazleerako eta 2,2 milioi esnetarako behi-aziendarako.

Hauexek izan dira gainerakoak: gizentzeko behiak (647.237 euro), ardien eskubide bereziak (97.516 euro), labore proteiko eta oleaginosoak (804.321 euro), transformaziorako tomateak (379.224 euro), arroza (254.355 euro), erremolatxa (94.680 euro), fruitu oskoldunak (22.406 euro), kalitatezko lekaleak (2.915 euro), eta nekazari gazteak (374.730 euro).

2017ko kanpainari dagokionez, behin epea itxita (apirilaren 30etik maiatzaren 15era luzatu zena), erregistratutako eskaera kopurua 13.814koa izan da. Horrez gain, 106 eskaera egin zaizkio erreserba nazionalari eta 1.814 eskaera oinarrizko ordainketa-eskubideak lagatzeko.